

# URDIÑARBEN, MUSIKAREN BESTA



Heldu den igandean, besta handi baten mentura badugu Xiberoan, Urdiñarben. "Bil Xokua" elkar-teak musika ta kantua ospatu nahi du. Egitarau eder bat muntatu daukute **(11.ren orrialdean)**

*Henning  
Hann*

## Urdiñarben, igandean musikaren besta

*Heldu den igandean besta haundi baten mentura badugu Urdiñarben. «Bil Xokua» elkarteak musika eta kantua ospatu nahi izan du. Karia hortarat egitarau eder bat muntatu daukute. Antolatzaile batekin mintzatu gira.*

Lehenik «Bil Xokua» presentatzen ahal daukuzu ?

«Bil Xokua» elkarteak duela 7 urte sortu zen. Huren helburua zen herriko pestetarik kanpo bertze animazio batzuen antolatzea urtean zehar eta edozoin gaien inguruan. Azkenik, Mauleko ihauterietan parte hartu ginuen, haurrentzat karo bat eginez. Bil Xokuan aurkitzen dira bai herriko gazte zonbeit, bai laborari, ofiziale eta denen abisuekin entseatzen gira zerbaiten antolatzea.

**Musika haundizki ospatuko duzue beraz heldu den igandean.**

Hastapenean, pentsatzen ginen besta ttipi baten antolatzea mahain baten inguruan, apairu baten bidez soinulari zonbeit ekarariz. Eta ohartu gira jende batzueri aipatu dugularik gure xedea, interesgarri zela. Orduan gehiago zabaltzea deliberatu dugu.

Artista zonbeit ikusiz eta mintzatuz, egitaraua handitu da.

**Musika eta kantari molde desberdinak aurkituko dira.**

Hori da gure helburua. Bilboko trikitilariak, Xiberoko txülülariak, Baxe Nafarroako gaiteroak elgarretaraziko ditugu. Berdin rockero gogorak, kantari tradizionalekin. Musika mota desberdinak. Gainerat badira hauetan famatuak direnak, bainan ere izanen dira lehen aldikotz taula gainerat iganen direnak. Hori da berezitasun bat, deneri zabaldua baita egun hori. Amatur guziak etortzen ahal dira.

Bertze berezitasun bat bada, zeren galdegin baiginuen artista guzieren ordaindu gabe etortzea. Ez ginakien nola errantzunen zuten, bainan denek onartu dute. Eta guk, antolatzaileak, pentsatu dugu, hauek dohainik jinez, guk ere publikoari buruz indar bat egin



behar ginuela. Eta sartzeari urrik izanen da.

**Noia iraganen da eguna ?**

Gaiteroak eta trikitixek abiaraziko dute ospakizuna goizeko 11tan. Gero bazkari bat izanen da (eta hortan parte hartzeko bere tokia segurtatu behar da deituz 59.28.40.83 zenbakirat). Hor kantariak hasiko dira giroaren sortarazteko eta segituko dute arats arte. Bainan ez dugu xuxen erraiten ahal nor ariko den, eta noiz... Guk espero dugu, doi bat nahasiko direla elgarren artean... Txomin Heguy Bedaxagar-ekin ariko dela edo Niko Etxart-ekin beharbada. Azpimarratu behar da ere, Koldo Amestoy hor izanen dela eta ipuin batzuei kondatuko dituela haur eta heldueri ere funtsean. Uztaro eder lan moldategia oihal haundi bat ezarriko du xoko batean eta norberak margotzen ahalko du bere nahiaren edo ahalen arabera.

Musikaren besta hori ohidura bat bilaka dadin litaike gure xedea. Agian ondorio onak ukanen ditugu pesta

hortaz, jendea gustatuko

dela, eta ondoko urtetan berriz antolatzeko gogoia emanen dauku.

**Parte hartzaileak :**

Popol Berçaitz, Anje Duhalde, J.Michel Bedaxagar, Niko Etxhart, Jojo Bordagaray, Ramuntxo Carrère, Nahas Mahas, Peio Agorody, Kolore, Xiberoko Txülülariak, Bernadette Castillon-Ramuntxo Farigel, Mathilde Egurbide, Txanbela eskola, Irrintzina, Elkor, Nik eta bere taldea, Martin d'Orian, Txomin Heguy, Guillaume eta Frantxo Hirigoyen.

**«Egunkaria»**

**Xiberuan**

Atarratze, Maule, Gotañe Iribarne, Gaingañe, Bar-koxe, Salgitze, Bildoze...

herrientzat ongi etorria

**maiatzaren 20an,**

**igandearekin**

**Urdiñarben,**

herriko plazan, 11,15tan izanen da «stand» handi bat, musikarekin !